

## INGURUMEN JARDUERA 2021

Energiaren Euskal Erakundeak Ingurumen Kudeaketaren ISO 14001 Ziurtagiria du.

EEEren bulegoak Bilboko Bizkaia Eraikinean daude, eta horien jabea Eusko Jaurlaritzak da. Beraz, Ogasun Saileko Zerbitzu Orokorrek dira logistikari lotutako ingurumen alderdi gehienak kudeatzeaz arduratzen direnak. Bizkaia Eraikinak ere ISO 14001 ziurtagiria du.

2018an, gure erakundeak 2020ko Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programarekin bat egin zuen, eta horrekin batera, bertan izenpetutako konpromisoak betetzeko erantzukizuna hartu zuen, Euskadiko gizartea, ekonomia eta ingurumena eraldatzen laguntzeko.

EEEren bulegoetan egindako ingurumen-alderdien identifikazioan oinarrituta, 2021ean honako alderdi hauek antzeman ziren:

- Bulegoetan kontsumitzen den paperezko kopurua.
- Ekitaldiak, jardunaldiak eta argitalpenak (zeharkako alderdiak, energia eraginkortasuna handitzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko politikak, teknologiak eta aholkuak garatzeko, ingurumenaren kudeaketa hobetzeko bitarteko gisa).
- EEEk bere laguntza-programen bidez eragindako energia aurrezteak.

Urtearen amaieran emaitzak honako hauek izan ziren:

## DESEMPEÑO AMBIENTAL 2021

El Ente Vasco de la Energía dispone del Certificado de Gestión Ambiental ISO 14001.

Las oficinas del EVE se encuentran en el Edificio Bizkaia de Bilbao, propiedad del Gobierno Vasco. Servicios Generales del Departamento de Hacienda gestionan gran parte de los aspectos ambientales derivados de su logística. El Edificio Bizkaia también está certificado en la ISO 14001.

En 2018, nuestra organización se sumó al *Programa de Compra y Contratación Pública Verde del País Vasco 2020*, lo que le obliga a cumplir los compromisos suscritos para contribuir a la transformación social, económica y ambiental de Euskadi.

En la identificación de aspectos ambientales realizada en las oficinas de EVE, en 2021 se detectaron como significativos los siguientes:

- Consumo de papel en las oficinas
- Actos, jornadas y publicaciones (aspectos indirectos, puesto que inciden en el desarrollo de políticas, tecnologías y consejos encaminados a aumentar la eficiencia energética y promover las energías renovables como medio para mejorar la gestión medioambiental)
- Ahorro energético inducido por el EVE a través de sus programas de ayudas.

Los resultados a final de año fueron los siguientes:

Helburuak/Objetivos	Adierazleak/ Indicadores	Helburua/ Meta	Emaitza 2021/12/31n a 31/12/2021
<b>Paper-kontsumoa %30 murriztea, 2019an erregistratutakoarekin alderatuta / Reducir el consumo de papel en un 30% con respecto al que se registró en 2019</b>	<i>Inprimagailuetan egindako kopiak</i> Copias en las impresoras	198.000	<b>187.691 (*)</b>
<b>Enpresa industrialetan energia aurrezteak sustatzea / Potenciar el ahorro de energía en las empresas industriales</b>	<i>Tpb/urteko aurrezkia</i> Ahorro teps/año	23.000	<b>17.239</b>
<b>Hirugarren sektorean energia aurrezteak sustatzea / Potenciar el ahorro de energía en el sector terciario</b>	<i>Tpb/urteko aurrezkia</i> Ahorro teps/año	10.000	<b>27.051</b>
<b>Garraioen sektorean energia aurrezteak sustatzea / Potenciar el ahorro de energía en el sector transportes</b>	<i>Tpb/urteko aurrezkia</i> Ahorro teps/año	17.000	<b>12.213</b>
<b>Energia aurrezteaz eta eraginkortasunaz kontzientziatzea gizarteari / Concienciar a la sociedad sobre el ahorro y la eficiencia energética</b>	<i>Egindako dibulgazio-ekitaldiak</i> Nº de eventos divulgativos	8	<b>9</b>
	<i>Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak / Actuaciones de formación y sensibilización</i>	50	<b>60</b>

*Paperaren kontsumoa kontrolatzeko erabiltzen den irizpidea bulegoetako inprimagailuetako kontagailuetan bildutako datuetan oinarritzen da. Laguntza-programa guztiak informatizatzeak eragin handia izan du adierazle horretan. 2019an, lehen aldiz, 300.000 kopien mugatik jaitsi zen. 2020an, kopurua 200.000 baino txikiagoa izan zen, baina pentsatu zen datu hori bulegoko lanordu kopurua murriztearen ondorio zela, etxean bi hilabetez konfinatu ondoren, eta geroago ezarritako telelanaren zirela eta.*

*Horregatik, 2021eko helburua ezartzeko, 2019an egindako kopia-kopurua hartu zen erreferentziatzat, eta %30eko murrizketa ezartzea erabaki zen, aurreko urteetan izandako kontsumoen bilakaera kontuan hartuta. Azkenik, kontsumoa 15.000 unitatekoa izan da, hasieran zenbatetsitako zifraren azpitik.*

## KARBONO AZTARNA

*EEE Taldearen karbono-aztarnaren eta saihestutako emisioen kalkulua egin da 2020rako, ISO 14064-1:2018 arauaren eskakizunei jarraiki.*

*Erakundeak kontrol operatiboa duen instalazio eta ibilgailuetako emisio guztiak kontuan hartuta egin da berotegi-efektuko gasen inbentarioa. Partaidetzako sozietateei dagokienez, %100eko partaidetza duten sozietateak eta haiei lotutako proiektuak eta instalazioak hartu dira kontuan. Irismen hori erabaki da, antolaketaren eta haren jarraipenaren konplexutasunagatik, informazioa eskuratzeagatik eta lotutako datuen zehaztasun-maila dela eta. Beraz, kontuan hartzen dira EEE Taldearen Bilboko eta Hernaniko bulegoak, Egañako lonja eta Asuako pabiloia.*

*Saihestutako emisioak kalkulatzeko, EEEk %100 baino gutxiago parte hartzen duen instalazioak/proiektuak hartu dira kontuan, eta kalkulua egiteko partaidetza-ehunekoak haztatu dira. Horretarako, faktore hauek hartu dira kontuan:*

- Energia berriztagarrien ekoizpena
- Tokiko gas naturalaren ekoizpena
- Ibilgailu alternatiboak norberaren flotan erabiltzea
- Laguntza-programek eragindako emisioak
- Dibulgazio-ekintzen ondoriozko emisioak

*Egindako kalkuluaren arabera, 1.304,5 tCO<sub>2</sub>e izan zen erakundearen karbono-aztarna 2020an. Saihestutako emisioak, guztira, 41.251,75 tCO<sub>2</sub> izan ziren.*

Para controlar el consumo de papel se utilizan los datos recogidos en los contadores de las impresoras de las oficinas. La informatización de todos los programas de ayudas ha tenido un importante impacto en este indicador, En 2019 se bajó, por primera vez de la barrera de las 300.000 copias. En 2020, la cifra se situó por debajo de 200.000, pero se interpretó que ello obedecía a la reducción del número de horas de trabajo de oficina tras dos meses de confinamiento domiciliario y por el sistema de teletrabajo implantado posteriormente.

Por este motivo, para establecer el objetivo de 2021 se tomó como referencia el número de copias realizado en 2019 y se decidió establecer una reducción del 30%, habida cuenta la evolución que se había observado en años anteriores. Finalmente, el consumo se ha situado en 15.000 unidades por debajo de la cifra estimada.

## HUELLA DE CARBONO

Se ha realizado el *Cálculo de la huella de carbono y emisiones evitadas del Grupo EVE* referido a 2020, siguiendo los requisitos de la norma ISO 14064-1:2018

El inventario de gases de efecto invernadero se ha realizado considerando las emisiones en las instalaciones y vehículos sobre los que la organización tiene control operativo. También se han tenido en cuenta las sociedades participadas al 100% y los proyectos e instalaciones asociados a las mismas. Se ha decidido este alcance debido a la complejidad de la organización y de su seguimiento, así como al acceso a la información y el nivel de exactitud de los datos asociados. Por tanto, se tienen en cuenta las oficinas del Grupo EVE en Bilbao y Hernani, la lonja de Egaña y el pabellón de Asua.

Para calcular las emisiones evitadas, se han considerado instalaciones/proyectos donde la participación del EVE es inferior al 100%, ponderando los porcentajes de participación a la hora de realizar el cálculo. Para ello, se ha atendido a los siguientes factores:

- Producción de energía renovable
- Producción de gas natural de origen local
- Uso de vehículos alternativos en flota propia
- Emisiones evitadas inducidas por programas de ayudas
- Emisiones evitadas por acciones divulgativas

El cálculo realizado arrojó como resultado que a huella de carbono de la organización en 2020 fue 1.304,5 tCO<sub>2</sub>e. Las emisiones evitadas totalizaron 41.251,75 tCO<sub>2</sub>.